



## TORNOSOLO KOPA TRINKETEAN, elitea TORNOSOLO KOPA Trinquete, elite

### FINAL LAURDENAK BIHAR TORNOSOLON

**Abadiño**ko kantxan 19:00etan hasita M.Gonzalez / Gurutzealde eta Harismendy / Aspuru dira jokatuko diren partiduak TORNOSOLO KOPA NAGUSI-ko estreinekoan

TORNOSOLO KOPA sari nagusia bihar hasiko da izen bereko Abadiño

ko trinketea. Iluntzeko 19:00etan hasita maila handiko bi partidu ikusteko aukera izango da bertan; Mikel Gonzalez eta Oier Gurutzealde emango diote hasiera torneoari, ostean Harismendy eta Aspuru lehiatuko direlarik.

Lehen partiduan hegoaldeko izar nagusia, zeina Iparraldean jokutzen ari den, eta Munduko kopan brontzea lortutako gipuzkoarra lehiatuko dira. Biak joku puntu onean heltzen dira. Bizkaitarra pasa den ostegunean Baionan titulua erdietsita (Bonetbelche-rekin Elgart-Lazkano 50-25 menderatu zituen finalean) eta gipuzkoarra orain hilabete eskas Mexikoko Munduko Kopan brontzea lortuta. Gurutzealde

 gainera azken euskal liga ere poltsikoratu zuen eta Abadiño bere maila erakusteko aukera eman diote. Dena den, berriztarra izango da faborito azken urteetan berak erakutsi baitu maila gorena hegoaldeko trinketisten artean.

Bigarren lehia, azkenean Harismendy izango da tarteko. Astelehenean izaniko lesioa ez da larria eta jokatzeko dago Iparraldekoa. Aurkari etxeko pilotaria, Asier Aspuru. Promesa mailakoa irabazita, abadiño

 rari sari polita egokitu zaio. Lasai jokatzeko aukera dauka eta ia horrek ezustekoa ematea ahalbidetzen dion.

### CUARTOS DE FINAL EN EL TORNOSOLO

**La cancha de Abadiño** acoge mañana el inicio de la COPA TORNOSOLO ELITE con los duelos M.Gonzalez / Gurutzealde y Harismendy / Aspuru (19:00h.)

Mañana viernes da comienzo la COPA TORNOSOLO ELITE en la cancha del mismo nombre de Abadiño. A partir de las 19:00h. se prevén dos partidos del máximo nivel; Mikel Gonzalez y Oier Gurutzealde rivalizan en el primero, Harismendy y Aspuru en el segundo.

El primero de la tarde enfrenta a la máxima estrella del trinquete en Hegoalde, ya en activo en torneos de Iparralde, y al guipuzcoano que recientemente ha logrado el bronce en la Copa del Mundo de la modalidad. Ambos llegan en buena forma no en vano el vizcaíno Gonzalez triunfó en el torneo de Baiona el pasado jueves (con Bonetbelche derrotó a Elgart-Lazkano 50-25) y Gurutzealde logró hace un mes el tercer lugar de la Copa del Mundo disputado en México refrendando así su categoría después de lograr también la liga vasca en mayo.

En el segundo duelo Harismendy, que al final si jugará en Abadiño tras recuperarse de su pequeña lesión, será favorito ante el manista local Asier Aspuru. El zaguero de Abadiño tiene la oportunidad de jugar con los grandes tras vencer el torneo 'Promesas'. Opta a dar la campanada pues el no tener nada que perder resta presión, algo que debe beneficiar para dar más de sí.



MUNDUKO PILOTA BATZARRA  
CONSEJO MUNDIAL DE LA PELOTA VASCA Y ASOCIADOS  
BASQUE PELOTA AND ASSOCIATED SPORTS' WORLD COUNCIL



Durangoko Merinaidearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango